



INPRIMAKIAK BETETZEKO INSTRUKZIOAK

Inprimaki honetan eskatzen diren datu guztiak inprentako letra erabiliz bete behar dira, unibertsitateak berak betetzeko hutsuneak salbu.

Eskabide-orri hau ezarritako epearen barruan aurkeztu behar da, gerora datuak zuzendu edo agiriak aurkez daitezkeela kontuan hartu gabe.

BESTELAKO OHARRAK:

1. ORRIA “LANKIDETZA BEKARAKO ESKABIDEA”:

- Eskatzaileak kontuaren edo aurrezki-libretaren titularra izan behar du titularkide gisa aita, ama, tutorea edo legezko ordezkaria ager badaitezke ere.
- Ez ahaztu, D idazatian, zure izen-deiturak, sinadura, eta tokia eta eguna adieraztea.

3. ORRIA “ERABAKI-PROPOSAMENA”:

- Izenburuan 2010-2011 ikasturterako ikasketak zein unibertsitatetan egingo diren adierazi, baita lankidetzaren emango duen Saila zein den ere, eta A, B eta C idazatiak bete.

5. ORRIA “IKASKETEN ZIURTAGIRIA”:

- Beka eskatzen deneko aurreko ikasturteetan ikasketak egindako **ikastetxeak berak bete beharrekoa**. Ikastetxe bat baino gehiago izatekotan, haietako bakoitzeko orri bat bete.

ESKABIDE HONEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1. Eskatzailearen NANaren fotokopia.
2. Euskal Herrian 2010eko urtarrilaren 1a baino lehenago auzotasun administratiboa duelako ziurtagiria.
3. Libreta edo kontu korronteko, “Bezero Kontu Kodea” jasotzen deneko orriaren fotokopia. Bertan banketxea edo aurrezki-kutxa bulegoa, kontrol digitua eta bekaren zenbatekoa ordainduko den kontuaren zenbakia identifikatuko dira. Eskatzaileak, nahitaez, aurrezki-libretaren titularra edo titularkidea izan beharko du.
4. Lankidetzaren Proiektua, garatuko den Sailak abalatu.
5. **“5.orria” behar bezala bete gabe aurkeztekotan soilik.**

Egindako ikasketen ziurtagiriak, honako hauek jasoko dituenak: irakasgaien edo jakintzagaien izenak eta horiek osatzen duten kreditu-kopurua eta lortutako kalifikazioa; eta 2010-2011 ikasturterako zein irakasgai edo kreditutan matrikulatu den. Bertan zehaztu behar da titulazioa lortzeko kreditu guztietan matrikulaturik dagoela.

ESKABIDEA AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

2010eko irailaren 30era arte, egun hori barne, zure Unibertsitateko Beketarako Atalean.